

## «GIZONAREN EGIAZKO AURPEGI BILLA»

### 1. Idazki, barriaren gaiak

Ego-Euskalerriko Gotzaiñak izenburu onegaz argitaratu dabe aurtengo eskutitza. Izenburuan bertan agertzen da eskutitzaren gaia: gizonaren benetako aurpegia (nor ta zer dan, nondik-norakoa dan, izatearen aurrean); baiña aurpegi orren «billa» ain zuzen be: billa gizona bere istori eta izatean zear, eta billa Gotzaiñak euren izatean eta eskutitz onetan. Alan be ez da billaketa utsa, bada erantzunik, naiz eta ez billaketa guztiz ta betiko kentzekorik.

Kristau fedearen muiña eta erdi-erdia ikertu eta azaldu gura dabiltz gure Goitzainak aspalditik, baiña batez be igazko eta aurtengo idazki biotan: «Jesukristoren Barri Ona eskeiñi nai dautsuegu» (3. zenb.). «Barri Ona» ez da emen izen generikoa, gero barruko beste edozein gai erabilten dala: «Barri Ona» Barri Ona danez emon gura dabe Gotzaiñak. Aalegin geiago merezi dauan gairik ez dago, itxaropenbako mundu onetan eta kolorea eta esangurea sarriegitan ia galdu dituan kristautasunaren aurrean. Igaz «Jesukristoren Jaungoikoa» berrargitu eta berrazaldu nai izan eben; orain, bizira deitutako gizonaz jardun gura dabe, ain zuzen be kontraesanez noraezean eta itxaropen bearrean dagoan gizonaz (2. zenb.). Gotzainak eurak be parte artzen dabe giza kontraesan eta bizi-itaun orreetan (3. zenb.).

Idazkiak zazpi atal ditu. Leenengo, gure gizarte inguruan

jazo izan diran aldaketak gogoratzen ditu (I). Politika, ekonomi, teknika etb. aldaketa, istilluen ugaritzea, gizarte planifikatua... Atal au bigarrenaren sarrera, inguru eta sorbide lez da. Baiña gure ustez, bigarren eta beste ataletan ikutzen diran kultura eta fede agerpenakaz badaukela erlaziñorik danok asmau arren, zeatz sorbidetza erlaziño ori azaltzea, ikertzea, ez da iñorentzat be erreza. Azken baten, gaurko kultura, etika eta erlejiño egoe-rea nondik eta zelan eratu dan zeatz ezin geinke deskribatu, naiz ta gure aurreko giza istori guztiak parte izan dauala jakin.

Bigarren atalean, barrurago begituz, gure gizarteko perso-  
nen izakerea aztertu gura dau idazkiak: aldakuntza materialaz eta kulturalaz lortu nai izan diran betetasunen eta barriz sortu (edo asmatu) diran utsen arteko kontradiziñoa (askapenaren billa, baiña morrontzapean etb.). Gaurko gure izakera au ikusteak, baiña, gizonaren (gaurko eta betikoaren) izakera bera aztertzeraz garoaz (III. atala). «Gizona bere gizatasunaren billa» da atal onen izenbu-  
rua, eta ederto biltzen dau atalaren mamiña. Gizonaren izatearen analisisa egikeran, izate orretatik urteten daben (eta izatearen be-  
raren parte diran) itaunak bein ta berriro gogoratzen ditue Go-  
tzaiñak. Era batera edo bestera gizonaren nondik-norakoari da-  
gokiozan galderak. Baietzapenak barik, itaunak egitea ez da pe-  
dagogiagaitik bakarrik: giza erreflesiñoaren, eta fedearen, bidea da; eta ez, gaiñera, erantzuna aurkitutakoan betiko atzean izten dan bidea. «Bide» orretan gertatzen da fedearen erantzuna be, itaunak kendu eta alperrikotzen ez dituan erantzuna.

Laugarren atala da batez be itaunez eundua: aurreko itau-  
nak batuaz, eta gizonaren alderdi guztietara begituaz, ez ete da ba bearrezko Jaungoikoa, ez ete da orrela gizonaren orizontean Jaungoikoa agertzen? (edo asmatzen), naiz beste era batera esan-  
da). Atal au da idazkiaren parte bien zubia. Bigarren parteaz bos-  
tgarren atalak asten dau, kristau fedearen barrutik erantzun au eskeiñiz: «Jaungoikoa gurekin». Berba onegaz Jesukristoren edo Jesukristogango Jaungoikoa emon nai da. Ez, beraz, utsik, erre-  
flesiñoaren edo misterioaren edo fede izenbako ta ezkutuaren Jaungoikoa (naiz ta Jesukristoren Jaungoikoak beste era guzti oneek be barruan artu). Jesukristogan (eta inguruan) gorpuztu,

istorikotu dan Jaungoikoa. Eta onen ondorioz, «Jaungoikoa gurekin» orrek Jaungoikoa gizonaren *bide-lagun* dala (itz biak azpimarratuz) emon gura dau: gure izakerea eta krutzea artzen dituana, eta bere bizi-endarrean artzen gaituana.

Fede iturri onetatik gizon eta emakume barriak sortzen dira, Jainkoaren seme-alaba eta alkarren artean anai-arreba (barriak, kristau fedea barria dan eifcan) (VI atala). «Jesusegan agertzen da gizakiak bere burua Jainko seme-alabatzat ezagutzen dauanean eta orrela bizi danean aurkitzen dauala bere benetako aurpegia» (43). «Ezagutu» (nor dan) eta «bizi»: oneek eratzten dabe atalaren ardatza. Ebangelioa (artzen dan Barri Ona) eta etika alkartuta, edo etika ebangelikoa, gizonaren jarrera eta egikera osoari dagokiona. Zazpigarren atala seigarrenaren osogaria dala esan leiteke, edo sakoneko laburpena. Izan be, «konfiantzarako deia», «erantzukizunerako deia» eta «itzaropenerako deia» idazki guztiaren frutuak dira, baiña gizonaren oiñarrizko jarrera orreek seigarren atalean be agertzen dira, an esaten danaren azpi-egitura dira ta.

## 2. Eskutitzaren erdigunea

Idazkiaren atal esentzialak bostgarrena eta seigarrena dira, bere erdi-erdi eratzten dabenak. Aurreko lau atalak gizonari buruzko erreflesiñoa dira, eta beraz iñondik be ez doguz garrantzi gitxikoak. Pausuka, geroago ta sakonago joanaz, gizonaren misteriora, itaun-izatera, urreratzen da. Orregaitik, idazkariaren parte bear-bearrezkoa da. Baiña ori egitean be Gotzaiñen asmua, azken elburua, Barri Ona iragartea da: itaun orreri erantzuna aurkeztea, gizonaren benetako aurpegia erakustea. «Aurkeztu» eta «erakutsi» edo antzerako itzak darabilguz, zerbaitez baliatu bear dogu eta, baiña jakiña aurkezte fisikoaz ez diardugula, fedezko iragarkez baiño. Alan be, fedean gertatzen dan ori, bakana izanda be, ezereza ez danez, giza espirituan gertatzen dan zer-bait danez, badago or «erakuste» eta «ikusterik».

Bostgarren atalak igazko idazkiaren («Jesukristoren Jaungoikoagan siñestea gaurregun») idea batzuk artzen ditu labur.

Seigarrenak Barri orrek gizonagan sortzen dauan aldakuntza («ikustean» eta «bizitzean») adierazten dau. Aipatu dodan lez, teologia eta etika bat egitiki azaltzen dira emen. «Etikaz» be diardu idazkiak, Jaungoikoaganako eta besteakganako gizonaren jarraz eta egikeraz ari danez. Orain urte bi, «Jesusen jarraipena eta kontzientzi morala» idazkian zuzenean erabilli eben kristau etika gaia gure Gotzaiñak, baiña orain be naitanaiez darabille. Alan be, orain *Barri Ona* danaren alderdia azpimarratzen da geiago. Onetan, igazkoaren jarraipena edo zabaltzea edo alderdi batzuetan sakontzea dogu. Igaz, zuzenean, Jaungoikoaren benetako aurpegiaz zan berbea. Baiña beti be «guretzako» Jaungoikoaz zanez, gizonaren benetako izateaz be baiñarduan. Aurten, artez, gizonaren «aurpegiaz» da, baiña gizona zer eta nor dan, ostera be, Jesukristoren Jaungoikoagan agertzen jaku.

Barri Ona da, barriro difot, igazko eta aurtengo gaia. Aurpegi bi alkarganatzen dirala: Jaungoikoarena eta gizonarena. Baiña aurtengoan be Jaungoikoaren benetako aurpegia da asikera ta sorburua. Orregaitik bein ta barriro agiri da aurpegi orren ardurea idazki onetan. Sarreran, idazkiaren eiburua aurreratzean: «Era berean, Jaungoikoagandik bizitzaz aldentzen joan diran gizon eta emakumeak be gogoan ditugu, Jaungoikoa eurentzat bizitzen laguntzen dauan esku adiskidetsua izan bearrean, azten gelerazoten eutsen opresiño-indarra zala illun asmatzen ebelako aldendu diranak» (3. zenb. idea berbera eta itzak be bardiñak 44. zenb.). «Bizitza geroago ta gogorrago eta astunago biurtzen dauan presentzi zorrotza» (47). Gotzaiñak, ostera, bizitza gizakorragoa iragarri nai dabe (3, 47), benetako askatasuna (47), Jesukristoren Jaungoikoa «laguntza, babesa eta eskeintza» dan ezkerro, eta «grazia, aringarria eta esku laguntzaillea» (64).

### 3. Kristau jokera oiñarrizkoak

Jesukristoren Jaungoikoagandiko argiak «bizitza gizatiagoa» egiten dauala baieztatzen dabe (47; eta idea bardiña 3. zenb.). Baiña gizatasun ori zelan ulertu bear dan idazki guztiak argitzen dausku. Esate baterako, gizonak Jesusegan au ikusten dau: «Guztiz Jaungoikoarentzat bizi da guztiz besteentzat biziz (48). Jesu-

sen deia lege bakar onetarako da: «maitasun askatzaillerako» (58). Izan be, «garrantzitsuena beti pertsona da eta bere azkuntza pertsona libre eta geroago ta anaikorrigo bizitzeko gauza danez» (bertan). Orregatik idazkiak sendo be sendo azpimarratzen ditu kristau fedearen berezko, barrutiko, eskakizunak: bestearen bi-ziaganako begirune osoa (50, 62), beartsuenganako serbitzua. Pekatua be aipatu bear dabe, eta onela mugatuz: «Maitasun oso, doaiango, iraunkor eta unibersalez maitatzeko ezintasuna» (57). Eta beste era batera: «Pekatuaren kontrako burrukea gizonaren askapenari serbitzeko aalegiñean datza dana» (bertan).

«Gizatiago» izatea askatasunean datza, eta askatasuna anaitasunean: maitasun askatzaillan. Askatzaillan, norberetzat eta besteentzat. Baiña norbere askatasuna bestearenagaz lotuta da-goala. Besteak, gizartea, seigarren atal guztian agertzen dira bein ta barriro, edozerariko ilketak, biolentzia, danetariko giza-zapalketa salatzen dirala. Egia da idazki ideala dala, baiña gizartearen eta pertsonaren izatearen errealismoa be agiri da. Errealidadeari begira egiña da. Ez, jakiña, ikerketa teknika gai bako-txean, esate baterako, ikerketa ekonomikua. Idazki «profetikua» da orretan, Alkartasun Barriko berbea be olakoa da ta. Baiña ikerketa teknikuak ez dabe mugatzen gizona zer dan, eta ze es-kubide daukan, eta beraz momentu onetan aurrean daukaguzan ekonomi ta giza ondorioak moralak eta onartzekoak diran ala ez be ez. Orretan dauke bidezko berbea Gotzaiñak (beste batzuen artean) gizartean, eta, jakiña, kristau alkartean.

Etika aldetik, naiz ta egite zeatz batzuk aipatu, ez da idazki onen egitekoa zeaztasunak emotea izan. Barri Ona emon eta ba-tera gizarteko egite batzuen salakuntza oiñarrizkoa (gizona bera deuseztu eta birrintzen dabenena) egitea da bere asmua. Barri Ona *danentzat* da izan be eta anaitasunaren Barri Ona, beraz, sa-lakuntza esentziala dau.

#### 4. Azken oar batzuk

Gotzain pastoral-idazkiari dagokionez, gizonaren erli-giotasun esplizittoa iragarri nai izan dabe Gotzaiñak. Leenengo

partearen (leenengo 4 atalak) zeregiña kristau fedearen iragarpe-  
na gertatzea izan da. Itaunak, billaketa, artegatasuna, zentzunik-  
eza. Gero, oster, erantzuna, argia, bidea, konfiantza (aipatu dogu  
guzti au triunfalismo barik egiten dala, eta guztiz bestetara:  
mundu ta giza kontradiziño ta betiko illunaren barruan). Bide  
egokia da au: kristau fedeak, bizitz-erantzun danez, gizonaren  
beraren izatetik urteten dauala gizonari ausnarreratzea (Jaungoi-  
koagandikoa, baiña ez kanpotik ezarria).

Laugarren atalean, idazkiak erreflesio-itaun au aurkezten  
dau: «Ez ete gabiltz gizonok, jakin ez-ta be, Jaungoikoaren billa?»  
Eta atal beraren amaian: «Ibilbide guztien azkenean, gure egarri-  
guztien ondarrean, gure itaunik sakonenen barnean, ez al dago  
Jaungoikoa, gizona salba daikuan Salbatzaille bakarra lez?» Batez  
be azkenengo galdera onen norabidea ez dau desarroillaten  
idazkiak, ez da ori bere asmua izan eta. Baiña au esan gura dot:  
gizonak bere bizitza sakonean billatu ezeze, Jaungoikoa zelan  
edo alan «aurkitu» egiten dauala, kristau fede esplizitoaren eran  
eta neurrian izan ez arren. «Aurkitu», billatzeko; baiña au kristau  
fedean bertan be gertatzen da.

Gaurko sortaldeko munduaren eta batez be gure erriaren  
fede-egoeraren aurrean, gure Gotzaiñak kristau fede errekuper-  
ratzeko aalegiñetan dabiltz. Vaticano IIaren ildoan. Errekuper-  
atu fededunentzat, aldenduentzat, fedebakoentzat. Iragarri eta za-  
baldu be bai, jakiña. Baiña leenago errekuperatuz, au da, bere  
esentzia, esanata, jatortasuna garbituz. Orregaitik da beti esen-  
tziala igazko idazkiaren gaia. Baiña, batera, giza askapen eta anai-  
tasun mezua be ain esentziala dogu. Onetan biderik egokiena  
artu dabe gure Gotzaiñak.

Gotzaiñak aurkezten daben kristau mezua baikorra da, op-  
timista, erakartzaillea. Au ez, airean eta oiñarri barik, munduko  
errealidade jakiñaren gaiñean baiño. Gizonaren alderdi ta indar  
onak biztu nai dabez. Eurakaz bat etortterik baiño ez dago one-  
tan. Alan be, zer pentsaturik badago emen. Aztuazo nai dan (eta  
errazoiz) erlegiño gogor-illuna, sarritan bizitza-zapaltzaillea,  
nondik sortu da? Itaun zabal ia besarkatu eziñekoa. Baiña eran-

tzun-zati batzuk be emon leikez. Biblian bertan be baditu oiñarriak. Eleizaren istorian, bere dogma, moral eta pastoral istorian. Gizarte era kultura aldaketak dauke orretan zerikusia. Baiña kristau dogmatikak (au da, fede-pentsamentu erresponsableak) ezin daike ori bakarrik esanez arazoa garbitu, pentsakera eta sentikero, fedearen mundua iñoz ikutu ez balebe lez. Dogmatikak ezin leikez aaztu, fedearen mundu barruan, eta naike barruan (noraiño?) izan diranok.

Bestalde, orain eta beti, ezin leike ukatu erlegiñoaren eta etikaren azken seriotasuna. Seriotasun orreri dagokioz ain zuzen be oraingo idazkiaren salakuntzak (gizonaren eta biziaren kontrako egiteen aurkakoak). Barriro be ona emen «Ebangelio eta Legearen» auzia. Barri Ona eta betebearra. Eta erresponsabilidada eta seriotasuna. Kristau fedeak ezin daikez, aaztu ez bata ez bestea. Baiña Gotzaiñen idazkian betebearra bere seriotasunagaz Barri Onaren argi eta indar barruan sartzen dala ikusten dogu. Eta seriotasuna, zor jaken giza egiteai (askapen eta anaitasunaren bidean) emon bear jakela.

*Luis Arostegi*